

Joseba Deun aundijaren egunean goiz-goizetik txadonatu gintzazan eta gaztedi geijena Jaunartzen ikustean oso atsegina zan. Ia ba gazteak, onak eta garbiak izan; ez goizian Eleizan, eta afatsaldian zoro, deabrau kolkuan dozuela. Ori safitxo egin dozue orain artean. Afatsaldean be, gazte mateok, goizian lez, geyenok Eleizaratu zinan, eta Buruega'tar Silbester gure txauburu jaunaren itz-alditxo entzun zenduen? Uuum!!! Bildur naz, belari batetik sartu ta bestetik urten ete dautsuen, ilunabafian txefen soñuarentzun neban ta. Galduek zare kofauok.

POSPIL

**Mañari.**

*Joseba deuna.*

Egun andi onetan, goxian Jaunartzen asko egin zan. Amafetako mesan, txauburu jaunak, Joseba deuna'ren aintzaz, berbaldi eder bat'egin eban. Eta afatsaldean be, elizkixun edefa egin zan.

*Juan-etofijak.*

—Donostia'ra juan egun batzuk igaroten Kapanaga'tar Masime bere lobatxuaz.

—Santurtze'n egun batzuk igarota, aste ontan etxeratu da Sabinaz'tar one gure aizkide mafia.

—Yufe'tik etofi zan Zubizafeta'tar Efosale anderañoa.

*Gexorik.*

Egun ontan gexorik aurkitzen da Arteaga'tar Luke anderea, Amante-gi'tar Lon'an emazia. Arin osatu.

*«Jel.orde»ri.*

Zeure azkenengo idazkian esaten zenduban, Ereño'n idazle asko zago ziela, ba aspaldijon geyenok ixil samar dagozala ta abar. «Atxostekua» neskati la azkafak ba, aspaldixuan emen gure artian aurkitzen dalako, orko izpafik ezin leike idatzi ba. Beraz, neskati la begiko onek ez idaztia, alperkerijaga'tik, enparaukoena ezta-kigu baña...

Ta orko bafijak jakiten doguzalako, eskefak zeuri «Jel-orde». Orañ-arte lez zintzo-zintzon ekin ba zeuk.

MAÑARIKO

**Urkiola.**

*Joseba Deuna'ren Bederatziaur-ena.*

Gutziz aundikero egin zan urtero lez, iluntzetan eguneroko egiten dau Agurtza Deunaren ondoren egiten izan da.

*Eguraldija.*

Eguraldijak guztiz edefak jafi dira, eta Arkaola'ko «Astronoma» jaunak diño guztiz uda-bafi edefa egin biar dabela, ta aurtengo udia-be bestetako aldian ona egin biar dabela. Beren izpafa abegi onagaz artzekua da, alantxe «Astronoma» ofen izpartxo-ua beteko balitz pozik giñake; Jaunak nai izan bedi-ba.

*Enbeitia Urkiola'n.*

Enbeitia'tar Kepa beren seme Imanol'egaz emen izan zan; tamal aundija izan neban neure adiskide mate ori egun ortan ez ikusi biafa etxetik enitzalako; ufenguan izango da ba.

*Juan etofi.*

Aramayo'tik etofija emen eurkituten dira Andoni Deunari bederatziaur-ena egiten Jauregi'tar Ana-Miren eta Pia neskati la on-onak eta abertzale zintzuak.

ITURIOTZ

**Ispaster.**

*Izpar baltza.*

Biotz samintasun aundia artu genduan guztiok batez be Ispaster'ko abertzaliok, igaro dan larunbatean zortzi, Agustín efementaria il zala jakin genduan. Kristinau zintzoa,

safi Jauna artzera juaten zanbertoko gizonari ikasbide edefa emonaz. Ez zan eleizkizunik, ez ileta edo entiefurrik bera jun barik geldiko zanik. Abertzale zintzoa. Lizafa edo Estela'ko batzafera eta Gero Madrileru Euzkadiko alkateakin larogei ta bat urte euki afen pozik asko joan zan. Lizafan eta gero Madrilén batu zirian Euzkadi'ko alkate gustien artian zafena zan, baña bera baño makalagoak eta abertzaletasunean epelagorik asko zirian.

Otoitz bat nere ikurle maiteak bere gogoaren alde, len bai len, Donokira edo zerura jun da Ispaster'ko efian abertzaletasuna zabaltzen lagundu daigun Jaungoikoaren afean eukiko daben bitartekotasunakin.

Baita be il zaigu Garateko Jose Mari. Bere sendiari laguntzen diogu atsekabean.

*Gexorik.*

Aurkitzen dira erdi makalik Alde-koka etxekoandre agurgafia ta Kortazarko Isidro.

Elizakoak artuta dago Egurengo Agustin. Arin osatuta opa dautsegu.

*Jayotza.*

Txumetegi'ko Afizubieta'tar Joseba Pantzaskaren emazte agurgafia aur bat izan dau. Zorionak.

*Antzeskiak.*

Datofen igandian bertoko neskatxa liranak antzeztuko dabe «Nekane» eta Altzaga'tar Toribi'ren alkar-izketa pafegafia «Bijar arte». Ikusteko zaletasun aundia dago.

AGARETXUKO LORFA

**Otxandijo.**

*Artzañak.*

Ordu onian dagoz artzañak, eguraldi onak ta bildoztak bafiz etxuraxto baten saltzeko asmuaz.

*Pelota txapelketa.*

Gure mutiok, Egun ta Otalora auffera duaz pelota txapelketan, baña etxuraz leleluak ez tira ixango.

*Esne batzarekuak.*

Amabost egun onantz lau bafijak sartu dire. Astiro baña tira, lugiñak gogoratzen asi dire, batu barik, norbera norberen aldetik ibili'ta ezabela ezer irebasten, alkartu ta alkartasun ofetan lana sendo egin dan danen onerako, ze gaurko egunian alkartu barik kontixu eztago inor bere lugiña baño.

URIGOIKO

**Akorda.**

*Naskaldija.*

Motriko aldetik egun batzuk igarota etofi da bere txokora Aba'ua'tar Tobi abertzale kementsua.

Mundaka'tik Jaunsolo'tar Sorne emakume liranã. Ongi etofijak.

Egunokaz ogeratuta aurkitzen dira Alvarez'tar Andone ta Akorda'tar Sorne neskati la gaztiak. Ainbat ariñen osatu.

*Urteurenã.*

Igaro dan astenian izan zan Mendi-zabal'tar Gergoren urteufena. (G.B.)

*Gautegiz-Arteaga'ra.*

Igaro dan igandian uri onetatik gazte asko juan zan Gautegiz-Arteaga'ra ango itzaldi sakon eta aberkoyak entzun ondoren pozik biurtu ziran etxera eta nik entzun dodanez txartelak be ekafi ei dituez Muxika'n zozketan igandean aterako daben aurtxoarenak. Akorda'rantz jausiko al da. ¿Neuretzako ez ete da egongo ezer?

GORANE

**Gerrikaitz ta Munitibar'ko izparrak.**

Entzun dogu batzuk emen asafe diriala, lengo aldijan izpafingi ofetan zozo-listuak aiatu zirialako ¡Olakorik!...

**JOSE LUIS ABAITUA'ren GABEUKAZ ETA BITXI-TEGIA**

Ormake, sakeleko ta eskubitufeko gabeukaztik onenak zidafezko naiz ufegofizkoak. Deun gustien domiñak, norberak gura dauzan era-erakoak. Apurtuak osotu ta bafiztuten dira.

Postas 28 - Gaztelz - Vitoria. Idazketxe-afean = Frente a Correos

**Joseba Deuna'ren Idazitegia**  
(Libreria SAN JOSÉ)

Bilbao'n danik orniduenã uz-kurtz'izazko saloskai gauzetan.

BILBAO'n Loterla 2

**Elelz - Jantzi ta urregintza**

**A. Rui-Wamba**

Eleizak jasteko biar dan gustia emen aurkituko dozue ona ta merke Plaza Nueva, 10 Ufutzikiña 14.238 BILBAO

**GORUNTZ - GAYAK**

Eunak, bale-bizafak, zumitz ugar-gaitzak

**Zubiri'tar Bingen**

Artekale, 50 BILBAO

**JANTZIAK**

gizonentzako Teadoron-ian egingotzue inun beizen ondo eta lauko asko kendubarik.

**TOVALINA Y C.ª L. D.**

SOMERA TT BILBAO

Lenengo oñian sartukeria dendatik.

¡Neu-gatik dok ori, diño batak, bai-te neugatik be bestiek! diño bestiek. ¡Bajakijak nik or nortzuk dabiltzen! diño ufenguek.

¡Sei dituk ofek! (bat gejago be ez, eta erdi bat gitxiago be ez.)

Apur bat ariñek ziriela bildufe bageunken lendik be, baña edo ofetan ziriñenik ez genduen uste.

Ogeta amar-en bat urte ixango dire Kirikiño ospetsuek izen egoki ori ezafi eutsela *sozialistak*, eta izen ofegaz ezagutu dire afezkero euzkerazko izpafingietan. Eta zuek ¿nun izen zarie ori ez jakiteko? ¡Olakorik!

Sozialistak bazarie, izen ori zentzenzat, oso egokije da-ta; bestela bafiz ixilik egon, edo ta ufenguen gauzak aurfetik.

«BESTE BAT»

Eztakit aspaldi onetan nundik gabaitzazan be. Neuk eztot idatzi eta bestek bez, eta efiko izpafik ezta-tofenean EKIN ezta saltzen.

*Arbolak aldatu.*

Gure efiko agintariok enparantza (plasia) nasaitu dabe, eta ango landarak beste toki baten ipiñi ditue. Orain obeto dago, baña lengoak imiñikorik ez egizue aldendu ta sosolistuoi ez egin yaramonik eta iraindu-ten bazaitue pikue moztu geiago gafasirik egin eztaien.

Igaro dan igandian Bilbo'tik etofita emen izan dira sosolisto aldria burutik biatzera lomez estaldurik.

*Gexorik.*

Eleizakuak artute dago Jayo'tar Marikruz eta baita len txarto egon da baña obeto dago Olano'tar Merzertes be. Arin osatu.

*Dabizenak.*

Beren ikasteldia egin da etxeratu-ta dago Jayo'tar Eujenia eta bardin

beren egikizunak egin da gure artian dago Solozabal'tar Mauresia be.

OIZBAREKO IDZLARIA

**Bedarona.**

*Jayotza.*

Bedarona'ko Deun Kepa'ren txadonan goztontxu ba ugutzau dabe; Galetabestia'tar Juana eta Atxabal'tar Leon senar-emaztiena eta izentzan Gabriel ezafi dautse; jayopafitxu onen aita amabitxiak izan dira, bere ixeko dan Galetabestia'tar Kaspiñesi ta Barainka'tar Emilio geure auzoko mutil gastia. Zorionak.

*Naskaldija.*

Igazi dan domekan geure artian agurtu genduan Atxabal'tar Marino Aletxeko txar ona, igaro dan ilean jauskera txar bategaz bere besuan min artuta egon dana gustiz obarantz eginda agertu zan. Poztuten gara Marino eta gustiz osatuta ia ba agertzen zarien pasquetan bildutz yan eder bat egiteko.

*¿Igandean nora?*

Igande onetan nora joateko didar egiten daukue; ba gustiok Ispaster era or gure Emakume Abertzaleko tokien gustizko yai eder, aundi bat dago ta ia ba igande onetan danok Ispaster'era.

BEDARUKO

**Gautegiz-Arteaga**

*Euzko-Jayak.*

Iragafita egon zalez Joseba Deuna'ren egunian Txara-txarako mendigoxaliak gerturiko jai aberkoyak ospatu ziran emengo enparantz nagosijan.

Lenengo amafetako jaupa nagusiya entzun geban abertzaliak; eta onen ondoren, bigurtu gintzazan Azkatasun Zelai'ra euzkel jai aberkoyak ikusteko asmuaz.

Lenengo izkintzokitik itz egin eban Ibai Gane, euzkal idazle ospetzubak, gustiz ederto asalurik bere bakar izketa bafagafiaz basafitafai jaseten yakon gauza guztiyak Bilbo'n edo uri andiyetan aurkitzen diran aldiyan. Txalo asko jo eutsien mutil gaste onei.

Onen ondoren emengo Emakume Abertzale Batzako eta Batzokiko bazkide batzuk aldra bat egin da Agur Jaunak abestu geban, gustiz ederto, ixanik oso txalotuak abeslari oneik be.

Au amaituta, Txara-txara'ko antzezlariryak Alkate Bafiya, antzeztu eban. Niri beintzat ez jatan atsegin izan antzerkiya, ba... itz guztiyak dagoz idatzite euzkera motrotuan.

Onelan amaitu ziran goixeko jolasak.

Afatzaldeko ordubatean oturuntza egin zan Batzokiko aretoan batzaldurik amazpi bazkide bakafik. Afatzaldeko eleizkizuna amaituta Txara-txara'ko ezpata dantzariak jantzan egin eben Azkatasun Zelaijan.

Eta onen ondoren Enbeitia'tar Sabin'ak, itz neurtu politik geurti eban; eta Isusi'tar Miren'ek eta Bafenetxea'tar Pelik itzaldi sakon, sutzu, Jel irakaskintzaz beteriko batzuk jaurti euskuezan.

Amaitu zan Euzko Abenda'ren Ereserkigaz.

BEUZKO

**Ea.**

*Deun Joseba*

eguna oso ederto ospatu geban; goxian mai deunera gixon ta emakuma asko eldu zirian. Jaupa nagosietan txonitza, Zabala aba M. B. S. egiñ euzkun geure ele garbi-garbian.

*G. Arteaga'ko*

euzko jaira be, egun ofetan gaste aldra edefa juan zan emetik, eta pozik etofi zirian danak.

«Goidalde» Batzokian

antzerki polit bat emon eben bertoko gastiak. Gustiz ederto antzertu eben «Afoña ta biloba»; danak esaten eben oraiñ arteko gustijak baño edefagua ixen zala antzerki au, ta inozko edertuen antzertu ebela; neuk be alan deritxat, Albo efijetatik oste andija etofi zan, alan da ze bete-beterik eguan dana; neu beintzat ije toki barrik geratu nintzan, baña ezkefak E. A. B. lendakari andereari eta L.'tar M. Koldobike aderañari. Laster beste antzerki bat izango dogu entzun dodanez; «Neskazafa» deritxona.

Ekin'ian iragafiko dot zigur jakin dagidanian, inor bere geratu ezte diñ nire «Kopradijako komedi»ori ikusi barik.

*Gotzontxu batek egaz dauzku Donokira.*

Ila onen 16'an efiko irakasle jaunari aurtxo jayo bafi bat il jake. Umetxu ofen obiratzian efi osuak lagundu eutsan. Guraso saminduok artu nire tamal agufa G. B.

*Sendi zintzua.*

Mutikotzu batek diruz beterik sakel bat aurkitu, eta beriala jaubiari biurtu eutsen aren gurasuak. Zorionekuak ezku garbiak. Olotegietan bazakatuak edo... anka bikuak ala laukuak?...

*Katuak ilñen.*

Gure ausoko Masima'ri «txuri» il deutze guri «baltxa», bestien ixenik ez dakit, baña olan baguaz afatoiak jango gaituez da kiñu.

PRAIKSU'REN LOBIA

**Mungia.**

*Joseba Deuna.*

Aundikero ospatu zan Deun altsu onen eguna. Goxeko jaunartzak ugarri eta amafetako jaupa nagusiya edefenetariaku ixan zan. Perosi'ren Pontifical mesia eta opakunde edo ofertorioan Victoria'ren lau abots nastuetara «Ave Maria» edefa, egokiro eta ederto, oi-daben'lez, abestu eben ertxadoneko abesbatzak.

Afatsaldian garixumako eleizkixuna, agurtza deuna, Kistar-ikasti-atzalbena, eta kurutzetakua abestijakaz.

*Jayotza.*

Gara'tar Antselma eta Legafeta tar Kelestiñe senar-emazte onak eta EKIN arpedunak alabatxu bat ixan dabe eta ugutzan Miren Josebe euzkel-ixen politik ezafi dautsez. Zorionak eta Miren Josebetxu neskato-txu jayopafitxuba E. A. B. lorategi-ko lora usaintsuba ixango al-da.

*Agurtu.*

Deun Joseba egunian emen agurtu genduzan Efotaetxe'tar Iñaki jauna, ta bere emazte ta seme alabak.

*Gexorik.*

Gripe edo dalako ofegaz, ainbat gexorik dagozanak euren artian Ganboa'tar Fele anderañoa. Gustijok laster osatuko al-dira.

*Belguntzak.*

Datofen egubaztenian, il onen oge-tabederatzian Meñaka'ko txadonan Belguntza Deuna emongo dabe Miren-Bijotza'ren semiak.

*Dbaitzananak.*

Gernika'tik etofita larunbatian agurtau gendun Astelafat'ar Nile anderañoa.

Larunbatian Bilbao'tik etofi ziran Bilbao'tar Jakinde eta bere alabak Afiaga'tar Garbiñe eta Itziar euzkel-ixendun neskatoak.

Durango'ko Deun Andoni ikaste-txetik gripe-gaxondorengua gurasuen onduan igaroten Etxebafia'tar Josebe euzkel-ixendun neskatoa.

*Batzara.*

Igaro dan igandian Euzko Gaste-dijan Uri-Buru-Batzara artezkaritza